

web web web

WEB-GUNE INTERESGARRIEN ZERREDA OSATZEHO LEHIAHETA

LEHIAKETAREN HELBURUA

Lehiaketa honen bitartez Muskizko Udalak euskal munduarekin zerikusia duten euskarazko web-guneen zerrenda osatu nahi du eta horretarako herritarren laguntza eskatzen du.

LEHIAKETARAKO SAILAK ETA NORK PARTE HARTU AHAL DUEN

Partehartzaileak banakakoak izango dira baina umeentzako sailean ikastalde bezala ere aurkeztu ahal da lana.

1

Umeentzako sailean, Muskizko ikastetxeetako lehen hezkuntzako ikasleek.

2

Gazteen sailean, Muskizko ikastetxeetako bigarren hezkuntzako eta batxilergoko - ikasleek eta Muskizko erroldatutako 18 urtera bitarteko edozein gaztek.

3

Helduen sailean, Muskizko erroldatutako helduek.

ZER BALORATUKO DEN

Interesgarritasuna, egokitasuna eta originaltasuna baloratuko dira sail bakoitzeko irabazlearen erabakitzeko. Ez dira baloratuko euskarazkoak ez diren helbideak. Ez dira baloratuko blog-ak horretarako kategoriatik kanpo.

EPAIMAHAIA

Muskizko Udalak aditu baten esku utziko du erabakia.

ZER AURKEZTU BEHAR DEN

Intereseko jotzen diren web-guneen link-zerrenda aurkeztu behar da. Linkak ondoko kategoria hauetan sailkatuta aurkeztuko dira:

- Ume txikien interesekoak
- Gazteen interesekoak
- Hiztegiak
- Institutio eta elkarten web orriak
- Literaturarekin lotura zuzena duten web orriak
- Euskarazko joko eta jolasak eskaintzen dituztenak
- Euskal musikarekin lotura zuzenekoak
- Kultur agendekin zerikusia dutenak
- Euskarazko atariak
- Prentsa eta komunikabideak
- Euskal Herriko ohiturei buruzkoak
- Euskal hizkuntza gai dutenak
- Euskararen ikaskuntza
- Web-gunerik dibertigarriena
- Blog-ik interesgarriena

1

Kategoria bakoitzean gehienez 2 helbide zerrendatuko dira.

2

Hamabost kategorietatik hamar beteko ditu lehiakide bakoitzak. Umeentzako sailean, bost kategoria baino ez dira beteko.

3

Web-gune bakoitzaren link-aren azpian bizpahiru lerroko azalpena idatzi behar da web-orri hori zergatik den gomendatzekoa azalduz.

NOIZ ETA NORA BIDALI BEHAR DEN

Zerrendak e-postaz bidaliko dira muskizkowebwebweb@gmail.com helbidera martxoaren 31 baino lehen datu hauekin batera: bidaltzailearen datu pertsonalak (izen-abizenak, ENA zenbakia, oparia bidaltzeko helbide postala eta telefono-zenbakia).

ARGITALPENA

Zerrenda horiek erabiliz Muskizko Udalak gida bat ateratzeko eskubidea bere egiten du.

SARIAK

Muskizko Udala harremanetan jarriko da sail bakoitzeko irabazlearekin eta horrek nahi duen euskarazko musika diskoa oparitutako dio. Horrez gain, Udalak Sauré

argitaletxearekin lankidetzan argitara emaniko Knossos-eko ondarea komikia jasako dute. Gainontzeko partehartzaileek ere komikia jasako dute.